

2009/6/22

INFORMAZIO KOMUNITATEA (EUSKARAZ)

Iban Arantzabal

"Hizkuntza komunitatea" zer den badakigu, gehiagotan erabili dugu euskaltzaleon arteko eztabaidetan, esaterako. "Hizkuntza komunitatea" hitz elkarketak baditu hainbat sarrera bilaketetan, baina "Informazio komunitateak"? Did you mean: informazioni comunitatea.

Komunitatearen esangurak, hala ere, badu zentzu zabalagoa eta Interneten zentzu hori edozein definiziok ematen duena baino harantzago doa. Interneteko komunitateak lotzen ditut aberastasunarekin, dinamiko izatearekin, mugimenduarekin, jendearekin, soslaiekin, elkartrukearekin, tribuekin, identitatearekin... eta euskararekin, zelan ez.

Hizkuntza garrantzitsutzat dugun guztiondako, eta ondorioz, euskara bizi dugunondako euskara hutsezko edukia sareatzea garrantzitsua izan da. Eskolak euskaldundu ditugu, euskalduntzen dihardugu euskaltegietan, enpresetan hamaika ahalegin egin dira... baina erabileran ditugu hutsuneak. Gure lana erabilerara bideratuta dago, hedabideok erabilerarako tresna gara. Euskaraz badugu sarearen zati bat, baina erabilerara dugu herren.

"Komunitatea euskaraz" izan zitekeen goiburu hitzaldi honetarako, baina nago, euskaraz izate hori parentesi artera eramateko garaia heldu dela. Zergatik? hain zuzen ere bigarren mailakotzat erakutsita egongo garelako lehenengo mailako garrantzia ematen.

Euskarazko tokiko hedabideon ikuspuntutik ere horrela behar luke. Edukia euskaraz emateak garrantzia handia du, baina eduki horrek bi elementu josi behar dituela uste dut: Batetik, kalitatea; bestetik hartzailea (komunitatea) identifikatua izatea.



Euskaraz izateaz gain nolakoa da daukagun komunitatea? anitza ideologian, pentsaeran, izakeran, jokaeran... Horrelakoa da Euskal Herri mailako hedabideetan jarduten duenarendako, horrelakoa da Estatu mailan jarduten duenarendako, eta baita herri edo eskualde mailan dihardugunondako ere. Gero eta garrantzia txikiagoa du ideologiak, esaterako, eta horri lekua hartzera etorri da erlazio afektiboa. Prentsa nazionalan ere ezkutatu ezineko balioa du erlazio afektibo horrek eta Goienarena bezalako proiektuetan sinisten dut erlazio horiek aberatsak direlako eta aberatsagoak izan daitezkeelako.

Gure komunikabide taldeak sentimenduak sortzen ditu, lokaltasunak gertutasuna esan gura du eta horrek balio erantsia ematen dio egiten dugun lanari. Gure informazio komunitatea kalitatetik, orekatik eta gertutasunetik lantzen saiatzen gara eta ahal delarik emozioak sortzen. Irakurle-ikuslearekin harremana izateari jartzen diogu indarra: gaur elkarte bat aurkeztuz, bihar herritarraren baserriraino joan eta ortuko produkzioa erakutsiz, etzi eskualdeko medikuen aholkuak jasoz.... Enpatia sortzeko gaitasuna handitzean egongo da gure etorkizuneko arrakasta eta euskaraz izatea komunitate horretako kide sentitzeko aldagai bat izango da, baina ez bakarra.

Komunitateak identifikatuta ditugu? Euskaldunona komunitate bat da bai, dudarik ez. Euskaraz jarduten dugunok begibistan dugu beti komunitate hori, baina ez ote da momentua komunitateak gehiago estutzeko? Teknologia berriek ematen digute aukerarik euskalduna gehi beste aldagai bat jartzeko eta komunitate zentratuagoak begiz jotzeko? Esaterako: 8-14 urteko euskaldunena ba ote da komunitate bat? eta 60-100 urte bitartekoena? Kirolzaleena? eta musikazaleen komunitaterik badago?

Baina jo hordago txikira: lagunarte euskaldun bati eman diezaiokegu hedabideok komunitatea osatzeko posibilitaterik?

ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

Miramar Jauregia, Donostia

2009ko ekainak 22, 23 eta 24



Behin komunitatea(k) definitu eta horiek guztiengana heltzean egon daiteke mahatsa komunikazioarendako. Euskaraz irakur-ikus-entzungo duten bezeroak euskaraz egote hutsari garrantzia kendu eta jendearekin kontaktuz lortuko dugu ditugun bezeroen fidelizazioa eta berriak erakartzea. Informazioa beraiendako, eta, inoiz baino gehiago, beraiekin lantzetik etorriko dira irakurle-ikus-entzuleak. Jendea emozionatzetik, enpatiarekin jokatzetik, gure komunitateko kide direla onartzetik.

